



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**JON GIL BELTZA JAUNAK, D. JON GIL BELTZA, LICENCIADO EN  
ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA, DERECHO, SECRETARIO-  
ASTEASUKO UDALEKO BITARTEKO INTERVENTOR INTERINO DEL  
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK, AYUNTAMIENTO DE ASTEASU,**

**ZIURTATZEN DU:**

**CERTIFICO:**

Udalbatzak, 2019ko apirilaren 16an  
eginiko bilkuran, honako ERABAKIA  
hartu zuen, A.F.A.ren 206 artikulua  
salbuespenarekin:

Que el Pleno del Ayuntamiento, en sesión  
celebrada el 16 de abril de 2019, ha  
adoptado el siguiente ACUERDO, con la  
salvedad del artículo 206 del R.O.F.

---

Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalek **EMAKUMEEN BIRAKO etapa bat** antolatzeko asmoa azaldu dute. Nesken kirola sustatzeko helburua nagusia izanda, neska kirolariei goi mailako proba bat eskaini nahi diete, eta gaztetxoek kirolaren erreferentzia bertatik bertara ezagutu dezaten.

Horretarako, aipatutako udalek eta DANENA ELKARTEKO TXIRRINDULARITZA SAILAK proba sei urte jarraietan antolatzeko lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko beharra dute.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Beraz, Udalbatzak

HAU ERABAKI DU

LEHENA. Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalen arteko lankidetzeta-hitzarmena onartzea, I. eranskinekoa.

BIGARRENA. Ahalmena ematea Asteasuko Udaleko Alkate-Lehendakariari lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA. BIGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea interesdunei.

## I. ERANSKINA

Zizurkilen, 2019ko                      ren            an.

### **Bildurik:**

JOSU AMILIBIA ALSUA Adunako Alkatea. Adunako Udaltzakerak 2019ko .....ren ean egindako bilkuran erabakitakoa betetzeko parte hartzen du.

JON UMEREZ URREZOLA Alkizako Alkatea. Alkizako Udaltzakerak 2019ko .....ren ean egindako bilkuran erabakitakoa betetzeko parte hartzen du.

M<sup>a</sup> PILAR LEGARRA KORTAJARENA Asteasuko Alkatea. Asteasuko Udaltzakerak 2019ko .....ren ean egindako bilkuran erabakitakoa betetzeko parte hartzen du.

ANELI URBIETA ETXEBERRIA Larraulko Alkatea. Larraulko Udaltzakerak 2019ko .....ren ean egindako bilkuran erabakitakoa betetzeko parte hartzen du.

MAITE IZAGIRRE IRAZUSTABARRENA Villabonako Alkatea. Villabonako Udaltzakerak 2019ko .....ren ean egindako bilkuran erabakitakoa betetzeko parte hartzen du.

JOSE M<sup>a</sup> LUENGO ZAPIRAIN Zizurkilgo Alkatea. Zizurkilgo Udaltzakerak 2019ko .....ren ean egindako bilkuran erabakitakoa betetzeko parte hartzen du.

### **BAIEZTATZEN DUTE:**

LEHENA: Aipaturiko sei udaletxeek eta Danena Elkarteko Txirrindularitza Sailak **EMAKUMEEN BIRAKO etapa bat** antolatzea erabaki dute. Nesken kirola sustatzeko helburua nagusia izanda, neska kirolariei goi mailako proba bat eskaini nahi diete eta gaztetxoek kirolaren erreferentzia bertatik bertara ezagutu dezaten.

BIGARRENA: Goian aipatutako udaletxeek eta elkarteak proba sei urte jarraietan antolatzea erabakitzen dute.

Hori dena kontutan hartuz, agerlariek honako hau hitzartzen dute:

LEHENA: Hurrengo sei urteetan lasterketak honako irteera eta helmugak izango ditu:

<b>2019</b>	<b>Irteera: Aduna Helmuga: Villabona</b>
<b>2020</b>	<b>Irteera: Alkiza Helmuga: Larraul</b>
<b>2021</b>	<b>Irteera: Asteasu Helmuga: Zizurkil</b>
<b>2022</b>	<b>Irteera: Villabona Helmuga: Aduna</b>
<b>2023</b>	<b>Irteera: Larraul Helmuga: Alkiza</b>
<b>2024</b>	<b>Irteera: Zizurkil Helmuga: Asteasu</b>



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**BIGARRENA:** Herri bakoitzak karrera adostu den herrietan antolatzeko ardur hartuko du. Horretarako hitzarmen hau eta, oro har, indarrean dagoen legedia errespetatuko dute.

**HIRUGARRENA:** Dokumentu hau izenpetzen duten instituzio publikoek onartutako ekintza, ondoren zehazten den moduan finantzatuko dute, bailarako herriak hiru talde desberdinetan banatuz; 2019. Urteari dagozkion kopuruak hauek dira.

<b>Villabona</b>	<b>6.500 euro</b>
<b>Zizurkil</b>	<b>6.500 euro</b>
<b>Aduna</b>	<b>3.900 euro</b>
<b>Asteasu</b>	<b>3.900 euro</b>
<b>Alkiza</b>	<b>1.100 euro</b>
<b>Larraul</b>	<b>1.100 euro</b>

Hurrengo bost urteetako finantzaketari dagokionez, Udal bakoitzak onartutako Aurrekontu Orokorren arabera izango da, bere kasuan.

**LAUGARRENA:** Ekitaldi bakoitzean Udal bakoitzak BIRAKO ANTOLAKUNTZAK ekarpena egitea eskatzen duen momentuan egin beharko du.

**BOSTGARRENA:** Hitzarmen hau sinatzen duten sei Udalek BIRAKO antolakuntzarekin hitzarmena sinatuko dute, 2019ko maiatzaren 23an BIRAKO etapa Aiztondon hasi eta bukatzeko. Era berean, BIRAKO antolakuntzarekin hurrengo bost urteetarako urtean etapa bat Aiztondo bailaran hasi eta bukatuko dela dioen hitzarmena sinatuko dute.

Bere adostasuna adierazteko hemen agertzen direnek hitzarmena sinatzen duten goian aipaturiko leku eta egunean.

---

Eta horrela jasota gera dadin, eta behar      Y para que así conste, y surta los efectos  
diren ondorioetarako, honako ziurtagiria      oportunos expido la presente, con el visto  
luzatzen dut, Alkate      Andreamen      bueno de la Sra. Alcaldesa, en Asteasu a  
oniritziarekin,      Asteasun,      2019ko      17 de abril de 2019.  
apirilaren 17an.

O.I. / V<sup>o</sup>B<sup>o</sup>

ALKATE ANDREAK / LA ALCALDESA